

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
'Zorionak' kanpaina
aurkeztu dute /08

HEZKUNTZA
Guraso Eskola
abian /09

LEINTZ GATZAGA
Elkarateak
bilera egin du /10



**AIZKORRI-ARATZ
PARKE NATURALA**

BASERRITARREK ALEGAZIOAK AURKEZTUKO DITUZTE

?!

TRANBIA: DURANA KALEKO BIZILAGUNAK KEZKATUTA/4 • KIROLAK: SQUASH TXAPELKETA/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 19
ITURRALDE. Belorrieta 1..... 943 79 27 22

DOMEKA, 20
ITURRALDE. Belorrieta 1..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 11:30

GELLAO
Ez dago mezarik.

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA
Baserrietan sortutako plastikoa batuko dituzte martitzen arratsaldean, otsailak 22. Jasoko dituzte Lausittan, Izurietara doan bidegurutzetik 100 metrora; Arkarazoko bide parean; eta Oroko bidegurutzean.

AIINGERU GUARDA EGUNEKO BAZKARIRAKO IZENEMATEA
Aingeru Guarda egunerako, martxoak 1, bazkaria antolatu dute erretiratuek. Taberna Berri jatetxean izango da bazkaria, eta zabalik dago izena emateko epea, otsailaren 20a arte.

BENIDORMERAKO IZENEMATEA
Basotxo erretiratuen elkarteak Benidormera bidaia antolatu du apirilaren 23tik maiatzaren 7a arte. Izena emateko Basotxotik pasatu.

SQUASH TXAPELKETARAKO IZENEMATEA
Otsailaren 21a arte egongo da zabalik squash txapelketan izena emateko epea. Interesa duenak kirol etxera egin dezala dei: 943 71 26 28.


ARGAZKI ESKE
Gurea tabernako argazki zaharrak batu gura dituzte. Hala, garai baten barruan osten egon zen zaldien koadroa ageri den argazkiak gura dituzte. Gureara eraman.

LORAMENDIRENAGENDA

GOMA-APAR IKASTAROA
Danel Goikolea arrasatearrrak goma-aparrarekin panpinak zela egin erakutsiko du bihar, hiru orduko ikastaroan.

EUSKAL FILM LABURREN EMANALDIA
Euskal Herrian egindako film laburrak emango dituzte datorren egunean, otsailak 24, 21:30ean, udaltxe zaharrean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.


ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN



Santutxoko ermita berritzeko lanak hasi zituen Udalak

Urte askoan konponketarik egin gabe egon ostean, otsailaren 16an hasi ziren herriaren sarreran da-
goen Santutxoko ermita berritzen. Hormak eta teilatua berritu zizkioten eta sarrera konpondu.


BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Mesaonotxia.
— Mesaonotse gainian dago zure erlojua.

JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



KONPAINIA NOBLEAN

Anjel Lertxundi
Alberdania, 2004
297 orrialde

Anjel Lertxundiren azken liburua da. Nobela bat da, baina baita eguneroko edo koadernoetako apunten gisan antolatuta dagoen ideia eta kontakizunen mosaiko bat ere. Euskal kulturako pertsonaia historikoen, gezurrezko pertsonaien, mitoen, kantuen, hitz berezien eta beste hainbat gauzaren inguruko inspirazioa hartu du idazleak, irakurketa berezia eta berria emanez, baina betiere atzera begira. Lertxundik geriatrikoan dagoen agurre baten ikuspegitik eginiko idatzi modura aurkeztu digu euskal kulturari eginiko errepaso literario berri hau.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astehenean, aste bukaera oso

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

EGUZZKIGRAF
inprimategia

Propaganda
Jalegintzak
Pegatinak
Liburuak
Errebistak

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

KOOP. E.

ATREBENTZIAEZPADA/ Ondo pentsetan jatzu zutoiñek jartie zebra-bidietan? Errespetauko dittue?



ANABEL SANTANDER
Langillie



ANTONIA NAVARRO
Langillie




LOURDES ETXEBARRIARTEUN
Langillie



AURELIO GONZALEZ
Langillie



RICHARD VELASCO
Langillie



JOSE RAMON GARAI
Langillie

Oso ondo. Aste bukaeratan edozein lekuten aparketan dau jentiek; astien ziher, barrez, momentu batien txarto itxiz gero segittuen jarten daue multie. Oin ezingo daue inoiz apar-kau.

Ez, ez zebra-bidietakuek, ez gaiñerakuek; asko jarri dittue, gaiñera. Momentu-ren batien aparkau biherra tokau leike, anbulantzia batek, eta ezingo leuke. Herri honetan ez dau lekuri-k.

Ondo pentsetan jat, baiñe oiñezkuoi traba haundixe egitten duskule uste dot. Horreik jarri barik auto-mobiliek ez daue errespetetan, oin uste dot baietz, bestela zetarako jarri, ez?

Ondo, espaloï gaiñien ez apartekie bada helburue, ondo. Argi dau zetarako dien, hortaz, errespetau gure dittuenak egingo dau, eta ez dauenak gure ez ikusixena egingo dau.

Ondo pentsetan jat, auto-mobiliek hor aparketako ohitturie baldin badaukie oin ezingo daue. Hala eta be, espaloï gaiñien aparkau gure dauenak topauko dau horretarako bidie.

Ondo; nik uste jentiek errespetauko dittuela eta zutoiñek dazen lekuetan behintzet ez dauela aparkauko ez zebra-bidietan ezta espaloï gaiñien be. Behintzet errespetau biherko leukie...

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ZEBRA-BIDEETAKO ZUTOINAK Zutoinak jarri ditu Udalak zebra-bideetan. Izan ere, auto gidariek ez dute ezer errespetazen aparkatze kontuei dagokienean. Gaizki aparkatzea gauza bat da, eta zebra-bideetan uztea automobila beste bat. Gurgildun aulkian doazenek eta umearen aulkia-ekin dabilzanek arazoak izaten dituzte pasatzeko. Ia horrela denok ikasten dugun... /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Tranbiari alegazioak

Durana eta Mitarte kaleetako bizi-lagun asko ez dau de ados tranbiarekin; alegazioak jarri dizkiote.

ASTEAN BEHIN /05

Lur jabeak kezkatuta

Aizkorri-Aratz ingurua parke natural izendatu behar dutela eta kezkatuta daude lur jabeak.

KIROLAK /06

Squash txapelketa

Astelehena, otsailak 21, arte dago zabalik squash txapelketan izena emateko epea.

ASTEKODATUA

21

LAGUNEK EMAN DU IZENA UDALTZAIN POSTURAKO


Udaltzain lanpostua betetzeko 19 eskari jaso ditu Udaleko idazkariak. Horien artean ez dago aretxabaletarrik, eta erdiak inguru dagoeneko udaltzain lanetan dabilzanak dira.

BESTEKEKESANA

“Aurreneko aldia idealizatuta ez nuenez ‘horrela izango da’ pentsatu nuen. Azkenekoa, ostera, erabat desberdina izan da. Normalean, ezezagunek morbo handiagoo izaten dute, baina nahiago dut gutxirekin askotan, askorekin gutxitan baino. Hori bai, Euskal Herrian ez da samurra ligatzea; batez ere, gustukoarekin. Eta parekoa gustukoa bada, orduan edozein tokitan egin daiteke. Mutil ederrak elkarrizketatu ditut eta hitzetik ekintzetara pasatzeko gogoarekin gelditu izan naiz bat edo bestean. Gainera, uste dut, Euskal Herrian morbo handiena kirolariek dutela, kazetariak eta politikariek baino gehiago. Hala ere, Brad Pitten proposamen bati ez nioke sekula ezetzik esango.

ITXARO ZUBILLAGA
'Berria'/05-02-09

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Badatorrela tranbia

Nahiz eta hilaren hogeian egingo den Europako konstituzio itunari buruzko erreferendumak besteko beldurrik ez eman tranbiak, biak ala biak bazterrak nahastuko dituztela lepoa jarriko nuke. Adi egon. Ustea, ez da jakitea, baina, Aretxabaletan tranbia jarrita, oiloa irabazi eta kapoia galduko dugula pentsatzen hasita nago. Guztien gogoia egitea gauza nekeza da. Gainera, halako herri txiki batean are zailagoa.

Beti izango dira ongi etorriak herrian auto pilaketak arindu eta kutsadura gutxituko dituzten proiektuak baina, tranbiak ekarriko lukeen aldaketa ez litzateke txikia izango. Entzun eta irakurriko zenutenez, Eusko Jaurlaritzak besapean dakarrena ez da makala. Bi-hiru kale eskas besterik ez ditugu herria goitik beheraino zeharkatzen dituztenak eta tranbia ez ezik autoek ere ibili beharko dute.

Asmo ona da behin aldaketak egiten hasita, herriaren erdigunera, Durana ingurura, autoei sarrera galaraztea, zonalde hori izaten da eta guraso eta seme-alaba askoren pasealekua eta egongunea. Baina azken finean, eta pentsatuta dagoen bezala burutzen

bada, lehen adinako arriskua legoke denbora gutxiren barruan tranbia gora eta behera badabil. Zenbait herritarrek tranbiaren ibilbidea Errekabarrenetik bideratzea hobesten badute ere, kontuan eduki behar dugu

etxebizitzetaz aparte hantxe ditugula zaharren egoitza eta anbulatorioa ere. Esan nahi dudana da handik pasatzea ere ez dela konponbidea; batzuentzako behinik behin. Inork ez du gura tranbia norberaren ahoko zulotik pasatzea. Onurak eta kalteak balantzan jarri behar dira. Egin, egin behar bada gainera, ondo pentsatu beharko. Nik konponbiderik ez dut. Baneki, hobe. Ez da samurra.

“Aretxabaletan tranbia jarrita, oiloa irabazi eta kapoia galduko dugula pentsatzen hasita nago”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Hotz, baiñe ez hotzak

Hotz egiten dusku azken egunotan. Edurre be bueltau jaku, eta ez mendixetara bakarrik. Hotz bai, egiten dusku, baiñe ez gabela gero hotzak! Astelenien San Valentin egune eta ETBko Bertatik bertara saiuen lehiaketie egin euien: zeinek bieldu sms mezu erromantikuena. Jasone Osoro idazliek aukeratu euen onena, eta zeinena aukeratuko, eta aretxabaletar batena.

Jose Ramon Etxeberriak irabazi euen; hona mezue: ni zu, zu gar, ni ta zu, su ta gar. Politte gero eh! Gustora ospatuko dau Donamariko Bentan egonalditxue.

Hotza pasetan egongo dan beste bat **Amaia Muguruza** da. Esan dustienez, Viena aldera fan jaku Athleticen partidue ikusten. Edurre eta izotza euzela futbol zelaixen ikusi neuen telebisiñotik, eta hemendik fandako zaliek berotu biherko daue girue.

Girue bero-bero egindde egongo dan beste leku bat Araia izengo da. Zapatuen Arabako Bertsolari Txapelketie hasiko daue bertan, eta Aretxabaletan bizi dan **Xabier Ormaetxea** epaimaiko kidie izengo da. Ez dau eukiko lan samurre, ez horixe!

Bukaketako domeka-ko hitzordue aittetu biher. Kurtzebarri eskolie zabalik egongo da; norberak ikusiko dau zer egin.

TRANBIA/ Proiektuari alegazioak aurkezteko epea martitzenean bukatu bazen ere, luzatu egin dute epea hilabetez

Alegazio asko aurkeztu dizkiote tranbiari Durana kaleko bizilagunek

MIRARI ALTUBE

Oso kezkatuta daude Durana kaleko hainbat bizilagun tranbiaren proiektuarekin. Hori horrela, alegazioak aurkeztea erabaki zuten, eta gainerako bizilagunei ere egin zezaten eskatu zieten. Alegazioak aurkezteko epea, gainera, hilabetez luzatu dute.

Tranbia badator. Gurera ere bai. Ezinezkoa iruditu zitzaizen herritar askori orain urtebete, baina dagoeneko proiektua eginda dago, eta ikusgai Arrasateko udaltxean. Erakusketa Bergarara eta Aretxabaletara ere ekarriko dute.


HERRI ERDI-ERDITIK

Begara eta Aretxabaleta elkartuko ditu tranbiak hasierako fasean; 17,5 kilometro guztira. Arrasatek etorriko da, eta Otolara kaletik Durana, Mitarte eta Araba ibilbidea zeharkatuko ditu. Noranzko bikoitzeko tranbiak bakarrik ibiliko dira, eta automobilak beste kale batzuetatik desbideratuko dituzte. Hori ikusita, Durana kaleko hainbat bizilagun kezkatu egin dira. Durana kalea herriko hirigune historiko izendatuta dago, eta herriko izaera gorde beharko lukeela diote. Durana eta Mitarte, gainera, elkarbizitzako eta jarduera komertzialeko gune aipagarrienak direla gaineratu dute.

AHAL ZIREN ALEGAZIO GUZTIAK

Bizilagunak elkartzeak indarra emango diela pentsatuta, alegazioak zelan aurkeztu azaltzen duten paperak banatu zituzten Durana eta Mitarte kaleetako atarte guztietan. Izan ere, ahal ziren alegazio guztiak bidali gura zizkioten Eusko Jaurlaritzari.

Kexu dira, herritarrengan eragin zuzena izango duen gaia izanik biztanleei ez dietela inolako azalpenik eman, ezta iritzirik eskatu ere. Proiektuaren erakusketa publiko egokirik ere ez dutela egin diote; izan ere, astelehenean aurkeztu zuten erakusketa Arrasaten, eta martitzenean bukatu zen alegazioak aurkezteko epea.



Tranbiaren gaineko erakusketarik ez da ailegatu gurera, baina zelan geratuko den herria erakutsi gura izan dute bizilagun batzuek.

Orain, baina, luzatu egin dute hilabetez epe hori.

ARETXARTE, ARDURATUTA

Aretxarte elkartean dauden komertzioetako jabeekin eta tabernariekin ere egin zuten batzarra.

Oso kezkatuta azaldu ziren. Bate-tik, tranbia egiteko lanek urte bi behintzat iraungo dutela-eta, tar-te horretan hala moduz egin beharko dutelako lan; eta bestetik, ez dutelako uste mesede egingo dienik tranbiak. Durana, Mitarte eta Ota-

lora kaleetan komertzio asko daude, eta tranbia gora eta behera ibiltzeak ez diela onurarik ekarriko diote. Hala, ados ez dauden komertzioek alegazioa egiteko erabakia hartu zuen, eta, horrez gain, Aretxarteren izenean ere egin zuten.

Tranbiaren ibilbideari ezetza, zergatik?

Alegazioak aurkezteko hainbat adibide jarri ditu Durana kaleko bizilagun talde horrek: Durana eta Mitarte kultura ekitaldiekin zerikusi zuzena duten kaleak dira: Andramari jaiak, Aratusteak, txirindulari lasterketak... Guztiak ospatzen dituzte bertan, eta herritarrek bertan elkartzeko ohitura handia dute. Tranbiak hori guztia oztopatuko luke. Merkatariek zein bizilagunek ezin izango dute zamalanik egin. Inguruko kaleetan zirkulazio nahastea

sortuko da, eta herriko mugikortasunari eragingo dio. Kurtzebarri eskolak itxi egiten du kalea eskola orduetan, eta tranbiarekin ezin izango du horrelakorik egin. Tranbiaren kableak fatxadetan geratuko dira, eta pasatzerakoan sortuko duen dardarak arriskua dakar etxeontzat. Bukatzeko, tranbiaren ibilbiderako ez dute uste aukera guztiak behar bezala aztertu dituztenik, eta herritarrei ez dietela berri eman ezta iritzirik eskatu ere gaineratu dute.

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otolara 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
- paellak eramateko



KiXkur

ILEAPAINDEGIA

- Solarium bertikala
- Ile-luzatzeak
- Estetika zerbitzuak



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

PARKE NATURALA/ Bost edo sei hilabete barru izendatuko du Eusko Jaurlaritzak

Lursailen jabeak ez daude ados Aizkorriko parkearekin

M.A.

Aizkorri-Aratz aldeko lursailak parke natural izendatuko ditu Eusko Jaurlaritzak sei hilabete barru. Bioaniztasuneko zuzendariak horren berri eman zien lurren jabeek joan zen astean, eta oso kezkatuta azaldu ziren hauek. Alegazioak aurkeztuko dizkiote planari.

Aizkorri-Aratz aldeko lurren jabeak oso kezkatuta daude. Eusko Jaurlaritzak parke natural izendatzeko plana egin du, baina iritzirik eskatu barik. Gainera, oso plan orokorra da, eta hutsune asko dituela uste dute.

IA 1.000 HEKTAREA

Aizkorriko parke naturalak 19.000 hektarea izango ditu, eta herri askotako lurak hartuko ditu, Debagoienean Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak. Gure herriari dagozkion ia 1.000 hektarea izango dira parke natural; horietatik 165 publikoak dira eta 781 jabe pribatuak. 781 hektarea horiek, gainera, erabat zati-tuta daude eta jabe asko dituzte. "Lur horiek, baina, ez dizkigu inork oparitu, geuk lan eginez eta ondo ordainduta irabazitakoak dira", dio Jesus Osinaga Oroko bizilagunak, "Baso horiek, gainera, ustiaketarako dira; Elgoibarko industria, esaterako, hemen egindako ikatzarekin jarri zen abian".

ADOSTU BARIK ETA HUTSUNE ASKO

Bioaniztasuneko zuzendari den Josu Erkiagak Aizkorri-Aratz aldeko natura baliabideak antolatzeko dituzten planen berri eman zien joan zen astean. Lursailen jabeak oso kezkatuta, eta batzuk haserre, azaldu ziren. Jesus Osinagak argi utzi gura du ez daudela parkearen aurka, baina bai plana egiteko erabili duten moduaren aurka: "Lurjabeek banan-banan deitu behar zigutela uste dugu, planaren berri eman eta denon artean adostutakoa izan zedin".

Alegazioak aurkezteko epea datorren martitzenean, otsailak 22, bukatuko zaie, eta hainbat



Lurren jabeek kezkatuta entzun zituzten parke naturalaren gaineko berriak.

Gure herriari dagozkion ia 1.000 hektarea izango ditu; 165 publikoak dira eta 781 pribatuak

aurkeztuko dituzte. Zergatien artean lurjabeek iritzirik eskatu barik egindako plana dela esango dute batetik, eta lurren gaineko eskubideak kentzekotan ordaindu diezaietela bestetik. "Ni parkearen aurka ez nago; helburua, gainera, oso ona dela uste dut: aisialdira eta hezkuntzara bideratua. Baina lur horiek jabeak dituzte, eta hutsaren truke kentzea ez da bidezkoa", dio Jesus Osi-

Lurren jabeak ez daude parkearen aurka baina bai egiteko erabili duten moduaren aurka

nagak. Planak, gainera, hutsune asko dituelakoan daude: "Zuhaitzak botatzeko baimen eske joaten garenean, esaterako, ez dakigu zein erantzun jasoko dugun...". Bost edo sei hilabete barru gura du izendatzea parke natural Eusko Jaurlaritzak, baina lurren jabeak euren alegazioak kontuan hartuko dituztelakoan daude. Ia denon gustuko eta denon oniritziarekin egindako parkea den.

LABUR

Korrika laguntzaile izan gura duena Loramendi Euskara Elkartetik pasa dadila

Martxoaren 16an, eguaztena, ailegatuko da gurera Korrika; 22:30ak inguruan sartuko da Aramaiotik. Aurretik, baina, ekitaldia antolatu beharra dago, eta atzo hain zuzen elkartu zen Korrika batzordea. Herriar guztiei dago zabalik, eta parte hartu gura duenak Loramendi Euskara Elkartean galde egin dezala.

Korrikari laguntzeko modu asko daude, eta bat Korrika laguntzaile izatea da. Horretarako Loramendi EETik pasatu, txartela bete eta 12 euro besterik ez da ordaindu behar. Laguntzaileek, gainera, beharpenak izango dituzte Euskal Herriko 300 komertziotan.

EHNA tramitatuko du Bai Euskal Herriari taldeak bihar, 12:00etatik 14:00etara

EHNARIk oraindik ez daukatenek edo izan arren aldaketak egin gura dituztenek zapatuan, otsailak 19, izango dute aukera. Bai Euskal Herriari taldeak EHNA tramitatuko du udaletxe zaharrean, 12:00etatik 14:00etara. Horretarako, errolda agiria, hiru argazki eta 15 euro eroan beharko dituzte interesatuek. EHNA egin baina balduta dutenek edo aldaketaren bat egin gura dutenek ere orduantxe izango dute aukera.

TXUTXU-MUTXUA



Bi orduan 128 sinadura jaso zituzten

Sinadura batzea egin zuen Hiruatax elkarteak joan zen zapatuan. Helburua da Euskal parlamentuak herri txiroetuekiko justizia eta elkartasuna adierazten duen legea onartzea, eta horretarako 30.000 sinadura behar dira. Aretxabaletan 19:00etatik 21:00etara bitartean egon ziren Mitarte kalean, eta 128 sinadura jaso zituzten. Euskal Herrian batutako sinadura guztiak datorren astean aurkeztuko dituzte Eusko Jaurlaritzan. /M.A.

ORLY

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

Angelines AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

SQUASHA


Squash txapelketan izena emateko epea zabalik dago, astelehena arte

Apirila bitartean jokatuko dute txapelketa; lehenengo, liga erara, eta gero kanporaketak

M.A.

Squashean jokatzea gustuko duten guztiek txapelketa daukate orain. Udaleko Kirol Zerbitzuek antolatu dute, eta kirol etxean jokatuko dute, apirila bitartean. Izena eman gura duenak astelehena arte du aukera, kirol etxera deituta: 943 71 26 28.

Urtero antolatzen dute Kirol Zerbitzuek squash txapelketa, eta aurtengoa otsailean bertan hasi gura dute. 16 urtetik gorakondako da, eta epaile lanak Iñaki Uribebarriak egingo ditu. Txapelketaren lehenengo fasea liga erara jokatuko dute, hau da, talde guztiak guztien aurka. Onenek, gero, kanporaketak jokatuko dituzte, hau da, final-laurdenak, finalerdia eta finala. Gainera,



ARTXIBOA

Apirila bitartean jokatuko dituzte squash txapelketako partiduak kirol etxean.

Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarria izango da. Debagoieneko Kirol Zerbitzuetan

ko abonatuak 12 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoak 15 euro.

Eskola kiroleko karate txapelketa jokatzen dabil Odei Vazquez

Hurrengo domekan eskola kiroleko Gipuzkoako Txapelketa jokatzen joango da, Donostia

M.A.

Eskola kiroleko karate txapelketa jokatzen dabilta otsailean, eta orain astebeteko Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu zen Odei Vazquez aretxabaletarra. Hurrengo domekan, otsailak 27, jokatuko du, Donostian, Kata eta Kumite modalitateetan.

Eskola kiroleko karate txapelketako lehenengo proba jokatu zuten joan zen zapatuan Eibarren hainbat gaztetok. Odei Vazquez aretxabaletarra hirugarren geratu zen Kata modalitatean. Hortaz, Gipuzkoako txapelketarako sailkatu da, eta hurrengo domekan, otsailak 27, jokatuko du, Donostian.

Odeik 8 urte ditu eta gerriko urdina dauka. Donostian Kata eta Kumite modalitateetan hartuko



ODEI VAZQUEZ

Odei, zutik dagoen bigarrena, Arrasateko karate taldeko kideekin.

du parte, eta lehenengo hiru postuetan gelditzen direnak Euskadiko Txapelketarako sailkatuko dira. Aretxabaletako gainerako taldeki-

deek ezin izan dute parte hartu baimenik ez dutelako, baina ekainean egingo duten txapelketara guztiak joan ahal izango dira.

TRIALSINA

Gipuzkoako Txapelketako hirugarren proba jokatuko dute domekan Urretxun

Gipuzkoako Trialsin Txapelketa jokatzen dabilta, eta domekan hirugarren proba izango dute Urretxun. Hainbat aretxabaletar dabilta txapelketan, eta proba txukunak egin dituzte guztiek ere. Markel Uriarte infantil mailan dabil, eta bosgarren egin du orain arteko proba bietan. Aitor Murua bikain dabil alebilen mailan, eta bigarrena izan da bi probetan. Unai Zuntzunegi eta Iker Mendikute, bestalde, benjaminen mailan dabilta eta aurreneko postuetan geratu dira biak ere. Aurten, gainera, Oihana Aldai hasi da bizikleta gainean ibiltzen, eta bigarren egin zuen lehenengo proban. Lau garren proba Aretxabaletan bertan jokatuko dute, martxoaren 6an.

PILOTA

Irabazi egin zituzten aste bukaerako partidu guztiak Aretxabaletako sei pilotariek

Kosta egin zaie Aretxabaletako sei pilotariei Udaberri Txapelketan aurrera egitea, baina joan den aste bukaeran partidu guztiak irabazi zituzten. Lasagabaster-Altzola bikoteak arrasatearrei irabazi zien 22-18, eta Errasti anaiek donostiarrei 22-14. Oion eta Uriartek azpeitiarren aurka jokatu behar zuten, baina ez ziren azaldu azken hauek, eta partidua aretxabaletarrendako izan zen.

Gaur partidu bi jokatuko dituzte Iturrigorri frontoian: Uriarte-Oion bikoteak antzuolarren aurka, eta Errasti anaiek azpeitiarren aurka. Lasagabaster eta Altzola Usurbilera joango dira bihar.

XAKEA

Arrasateko San Andres taldearen aurka derbia jokatuko du bihar Arlutz Xake taldeak

Derbia jokatuko dute bihar Arrasateko San Andres taldeak eta Aretxabaletako Arlutzek. Partidu interesgarria izango da; izan ere, biek gura dute irabazi eta puntuak lortu. Aretxabaletarrak bosgarrenak dira sailkapenean eta lau talde daude berdinduta hamar puntu eta erdierkin. Arrasatearrak, oster, bederatzigarrenak dira, eta sei puntu dituzte. Euskal Ligako Ohorezko Maila hamar talde osatzen dute, eta azken hirurak mailaz jaitsiko dira. Hiru partidu bakarrik falta zaizkie liga bukatzeko; hortaz, San Andres taldea irabazten hasi beharrean dago mailaz jaitsi gura ez badu. Arlutzekoek ere ez dute lo geratu behar, lau talde daudelako berdinduta.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Aloña-UDA

Preferentea.

Domeka. Oñati.

Arizmendi/UDA-Añorga

Bigarren mailako kadeteak.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Antzuola

Bigarren mailako nagusiak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

Aretxab.-Ilunpe (Azpeiti)

Lehen mailako nagusiak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Tolosa 2

Preferentea.

Hondarribia 2 UDA 1

Gazteen ohorezko liga.

UDA/Arizmendi 6 San Inazio 2

Lehen mailako gazteak.

Touring 3 UDA/Arizmendi 3

Lehen mailako kadeteak.

UDA/Arizmendi 4 Urki 1

Bigarren mailako kadeteak.

UDA/Arizmendi 1 Touring 1

Infantil ohorezko maila.

Elgoibar 1 UDA/Arizmendi 0

Infantil txiki.

Almen/UDA 3 Mutriku 1

Emakumeen liga.

Almen/UDA 7 Antzuola 0

Emakumeen F-8 liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. 22-Arrasate 18

Lehen mailako nagusiak.

Aretxab. 22-Loiolatarrak 14

Lehen mailako nagusiak.

Azpeitia-Aretxabaleta-

Bigarren mailako seniorrak.

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43

Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura


Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

943 79 86 21

HURRETIK



Joaquin Lizarralde

Jubilaua

Joaquinek Aratustietan faraoi mozorrua jantzitze urten euen kalera; eta a ze ezustekue! Lelengo sarixe emun eutzien bere taldiei. Astegun normaletan, baiñe, mendixen ibiltie gustetan jako 82 urteko aretxabaletar honi.

Zelatan mozorrotu zitzen Aratustietan?

Lobek eskatute jantzi neuen faraoi mozorrua. Neuk be ez dakit zela animau nitzen. Lelengo aldixe izen da aurten, eta esan biherria dauket primeran ibilli nitzela.

Eta zela pasau zeuen egune?

Edarto ibilli nitzen, benetako faraoien antzera. Jentiek txalo eta txalo egitten eusten. Nik ondo pasau neuen, baiñe gaiñerakuek be...

Ze da jai horreittatik gehixen gustetan jatzune?

Gehixen, egoten dan giro sanue. Jentiek zela disfrutetan dauen ikustie politte dala pentsetan dot.

Lelengo aldixe eta irabazteko asmorik baeuketzun?

Sekule taldien mozorrotu barik, eta pentsau be ez neuen egitten sarixe irebaziko geuenik.

Jentie agurketan ibilli zitzen.

Patxuek bieldu nutzien ikusten euzenei. Gaiñera, Aratuste-domekan bertan esan eustienez mozorrotu biher nitzela, ezer ensaiaru barik geuken.

Ensaiaur barik eta estiluekin...

Ez dakit estilue izengo dan, gure barik urten euen danak eta.

Urtengo dozu beste urteren baten be?

Ez dakit. Urtiek aurrera doiez eta... ikusi egin biher.

Zeatik esaten dutzue Gabartxo?

Gure aitte Mendiolan euen Gabartxuena baserrixen jaixo zalako.

Ibiltie gustetan jatzu asko.

Atsaldero Urkuluraino faten naz pasiuen. Lehen, medikuek atsedan hartzeko esaten euen; oin, barriz, ibiltteko. Eta hori egitten dot.

Arantzazura be faten zare oiñez...

Oin dala bi urtera arte Aretxabaletatik faten nitzen oiñez, Arantzazuko peregrinaziño egunien. Oin Oñetire kotxien erueten naue eta handik igoten dot; hori bai, bueltie be oiñez egitten dot.

Euki dozu ezusterik mendixen?

Bedoñan susto edarra hartu neuen: zulo batera jausi eta gero ezin urtenda geratu nitzen. Laguntza eskien ibilli nitzen denbora luzien eta azkenien bakarrik urten neuen. Oin telefonue albuen erueten dot, eta gabien ikusten dien txaleko horreittakue be badauket.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA / Nerea Etxeandia

Kenya / 2005eko urtarrila

Orain dela aste bi egon zen Nerea Etxeandia senarrarekin batera Kenya aldean. Astebe-te pasatu zuten bertan, eta nekata itzuli zen Nerea: "Geratu barik ibili ginen Afrikako sabanan hara eta hona animalien atzetik, eta bidaiara bukaeran eguntxo batzuk hondartzan lasai-lasai gustura hartuko nituzkeen".

Hegazkinetik jaitsi orduko furgoneta txiki baten sartu, maleta hotelean utzi eta animaliak ikustera joan ziren: "Egurrezko txabola batera eraman gintuzten animaliak ikusteko. Aurrealdean ur-putzu bat zeukan eta gatz bolak botatzen zizkieten zaintzaileek, etor zitezten. Elefanteak, bufaloak eta gazelak ikusi genituen", dio Nereak. Hurrengo egunean Ekuadorko lerroa dagoen tokia erakutsi zieten: "Pospolo bat jarri ziguten ura zeukan ontzi baten, eta lerrotik iparraldera erlojuaren orratzen aldera mugitzen zen eta hegoaldean beste aldera; lerro gainean, bestalde, geldi geratzen zen pospoloa".

Urtarrila ez da animaliak ikusteko garairik egokiena, eta bila ibili behar izaten zuten furgoneta-ekin, bateren bat ikusteko: "Gepardo bat ikusi zutela esan ziguten behin, baina gure zain ez zen geratu eta ez genuen ikusi. Jirafak eta hipopotamo



"Egurrezko txabolara eraman gintuzten; elefanteak, bufaloak eta gazelak ikusi genituen bertatik"

"Memorias de África filma errodatu zuten etxean egon ginen; hantxe zeuden Robert Redforden prakak ere"

Redforden erabilitako prakak ere". Jirafak eta krokodiloak zaintzen dituzten parkeetan egon ziren bukatzeko, eta orduantxe sentitu ahal izan zuen Nereak hurbil-hurbiletik jirafaren berotasuna.

MIRARI ALTUBE

zuri bat ikusi genituen". Nakuru lakura eraman zituzten gero. Flamenkoz beteta egoten da Nakuru, eta hegaztiekin duten kolore arrosa hartzen du lakuak; ikusgarria benetan.

Poliki-poliki Masai Mara parkean sartu ziren. Animaliez gain masaiak bizi dira bertan. "Nahiz eta turistoi dirua eskatu euren herrietara sartzeko, lehen bezala bizi dira: animalien gorotzekin egindako txabolak dituzte, emakumeek bakarrik egiten dute lan, gizonak emakume bat baino gehiago izan ditzakete... Tristura handien, baina, umek eman zidaten: mukiak zintzilik eta aurpegia euliz beteta", dio Nereak. Gau hartan sabana erdian prestatu zieten afaria, eta babesten masaiak egon ziren.


Azken egun eta erdia Kenya hiriburuan, Nairobiri, pasatu zuten, eta *Memorias de África* filmeko protagonista Karen Blixen idazlearen etxea erakutsi zieten. "Filma bertan errodatu zuten, eta dena zegoen filmean bezala, hantxe zeuden Robert



Masai emakumeek zela egiten duten dantza erakutsi zieten Nereari eta gainerako taldekideei.

ARETXA-AUTOAK, S.L.

Mota guztietako piezak konpontzen ditugu



Basabe Poligonoa A- 2- 4
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 00 68
e-mail: garage@garage-oscar.euskalnet.net
www.garageoscar.com

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 18a / 198. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

'Zorionak' kanpaina aurkeztu dute, jaioberriak dituzten familiei laguntzeko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzan aurkeztu dute aste honetan *Zorionak* kanpaina. Jaioberriak dituzten familiei hainbat opari egingo dizkiete; ibarreko udaletako euskara zerbitzuek elkarlanean eta Mankomunitateak koordinatutako ekimena da. Astelehenean lehen bi aleak banatu zituzten.

Astelehenean, otsailak 14, Mankomunitateak koordinatu eta Debagoieneko euskara zerbitzuek elkarlanean abiatutako *Zorionak* kanpaina aurkeztu zuten udaletxean. Hiztegi, liburuxka eta CD bana emango dizkiete jaioberriak dituzten familiei. Umeentzako euskarazko hitz egokiak —*apapa joan, apatxi egin...*— bultzatzea dute helburu, besteak beste.

BI MILA ALE

"Bi mila ale atera ditugu gutxi gorabehera, eta hilabete bakoitzean jaiotako zerrenda hartu eta postaz etxera bidaliko zaie familia berriei", azaldu zuten asteleheneko ekitaldian. Hala ere, gogoratu zuten Eskoriatzan aurretik antzerako ekimena egiten zuela Udalak. "Orain arte, aholku-



Arrieta eta Iñurrategi arduratu ziren kanpaina berria aurkezteaz.

liburua eta Etxean Kantari diska opari egin diegu ume jaioberriak izan dituzten familiei", eman du aditzera Mari Carmen Arrietak. Aurkezpenean, Mari Carmen

Arrieta Euskara teknikariak eta Iñigo Iñurrategi Mankomunitateko Euskara batzordeburuak hartu zuten parte, besteak beste. Euskararen transmisioaren garran-

tzia azpimarratu zuten, nola Iñurrategik hala Arrietak: "Funtsezkoa da jaiotzen direnetik hizkuntza barneratzea, urrats klabea da", esan zuen Iñurrategik.

'Transmisioan funtsezkoa da jaioberriek hasieratik hizkuntza barneratzea'

Hiztegi, liburuxka, musika CD eta autoetan jartzeko pegatina bana gurasoentzat

Orain arte, Udalak aholku-liburua eta Etxean Kantari diska banatu dizkie familia berriei



Zozketa solidario bat egin eta 8.157 euro Asia aldera

Arizmendi ikastolako batxilergoko ikasleek elkartasun zubi bat zabaltzea erabaki zuten Asian tsunamiak kalte-tutakoei laguntzeko. Hala, zozketa solidarioa egin dute. Irabaziak Asian lanean diharduen Intermon Oxfan gobernu kanpoko erakundeari eman diote. Lehenengo saria Maialen Zubizarretak jaso du eta bigarrena Paki Aranak. Ikasleek eskerrak eman gura dizkiete parte-hartzaileei; izan ere, 8.157 euro jaso dituztela eman dute aditzera. /Z.V.M.

LABUR

Eskoriatzarrek alkateari galderak egiteko aukera

Datorren otsailaren 22an, martitzena, Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkatea GOITBko Debarri saioan egongo da. Askotariko galderei erantzungo die bertan, eta herritarrek ere izango dute aukera galderak egiteko.

Horretarako, Goiena.net webguneko Eskoriatzako eztabaida-gunean sartu besterik ez dute interesatuek. Herritarrei interesatzen zaizkien gaiak ibarreko telebistan argitzeko aukera egongo da, beraz, datorren martitzenean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOLA ETA SASKIBALOIA

Euskal Ligako partidua bihar, zapatua, 16:00etan, kiroldegian. Eskoriatza KE, Gasteizko ADC Basoiloak taldearen aurka. 18:00etan, Bigarren Mailako saskibaloi partidua: Eskoriatza KE, ED Internacional taldearen aurka.

MENDI INGURUA EZAGUTUZ

Luis Ezeizako Guraso Elkarteak ibilaldia antolatatu du domekarako. Letera igo eta ondoren Mendiolarra joango dira. 09:15etan elkartuko dira Herriko Plazan.

URETAKO PARKEA

Domekan 16:00etatik 20:00etara uretako parkera joateko aukera. Kiroldegiko bazkideek 1,5 euro ordaindu beharko dute sarreragatik; gainerakoek 3 euro.

IPUIN KONTAKETA

Otsailaren 24an 5 urtetik gorako gazteentzat Peio Añorgak ipuin kontaketa eskainiko du; 18:00etan Bibliotekan.

BEDERATZI HIZLARIK ITUNARI BURUZKO DATUAK EMAN ZITUZTEN

Europako Konstituzioari buruz argibide gehiago jasoguran, fakultateko aretoa goraino bete zen

Z.V.M.

Martitzen arratsaldean Europako Konstituzioari buruzko mahai-ingurua egin zuten HUHEZIKO areto nagusian. Bederatzi hizlarik hartu zuten parte; hainbat alderdi eta erakundetako ordezkariak izan ziren bertan. Aretoa bete egin zen, zalantzak argitzeko asmoz.

Eskoriatzako HUHEZI fakultateko Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta, Europako Konstituzioaren inguruko mahai-ingurua egin zuten martitzenean. Liher Gonzalez IAKO kideak aditzera eman zuenez, "jendeak zalantzak dituela ikusi eta Europako Konstituzioa nondik nora doan azaltzea beharrezkoa dela pentsatu dugu". EA, EB, Aralar, EAJ, Batasuna, Zutik, LAB eta ELA eta IAKO ordezkariak egon ziren fakultateko areto nagusian.

Itunari buruz orokorrean egin zuten berba hasieran. Ondoren, nazio ikuspegitik ze eragin izan dezakeen azaldu zieten bertaraturakoei. Arlo ekonomikoan izango dituen hainbat eragineri buruz ere hitz egin zuten; baita segurtasunaren aldetik ekarriko dituen



Alderdi eta erakunde askotako bederatzi hizlarik hartu zuten parte mahai-inguruan.

aldaketei buruz ere. Nork bere ikuspegia eman zuen. Baina Europako Konstituzioaren alde bozkatzeko deia bederatzi hizlarietatik batek egin zien bertaraturakoei, EAJ alderdiko ordezkariak, hain zuzen ere.

Gainerakoak bat etorri ziren itunaren sorrera sekretismoz beteta dagoela, ituna estatu handiek sortu dutela eta herrien iritzirik gabe egin dela esaterakoan. Hala, herrien ituna izan beharko lukeela ondorioztatu zuten. Bes-

talde, nahiz eta ezezkoa nagusitu, aldaketarik egiten uzten ez duen ituna dela ohartarazi zieten bertaraturakoei. IAKO ordezkariak, bestetik, itunak hezkuntzaren pribatizazioa ekartzeko arriskua dagoela aipatu zuen.

IKASTAROA/ Intereseko gai ezberbera egin, eztabaidatu eta hausnartzeko aukera

Guraso Eskola: seme-alaben heziketaz arduratutako herritarrei zuzenduta

Z.V.M.

Martxoan hasiko dituzte gurasoei zuzendutako eskolak. Hainbat gai mahai gainean jarri eta haiei buruzko hausnarketa egitea da Guraso Eskolaren funtsa. Otsailaren 28ra arte dute interesatuek izena emateko. Azkeneko saioa maiatzean izango da.

Seme-alaben heziketaz arduratuta dauden Eskoriatzako gurasoentzako Guraso Eskola antolatatu

dute, bigarrenkoz. Hainbat gairi buruz berba egin, eztabaidatu eta hausnartzeko eskola da.

Iaz bezala, aurten ere Urtxintxa Eskola arduratuko da landuko dituzten gaien jarraipena egiteaz. 18:00etan hasi eta ordu eta erdiz kultura etxean elkartutakoek askotariko gogoetak egiteko aprobetxatuko dute.

ASKOTARIKO GAIAK

Martxoan hasiko dira eskolak ematen eta maiatzean amaituko da Guraso Eskola. Askotariko gaiak

landuko dituzte, hiru ikastarotan banatuta. Hasteko, martxoaren 16an eta 17an, familiek bizi izaten duten zenbait egoerari buruz egingo dute berba. Gurasoen banantzea, familiako norbaiten heriotza eta halakoak izango dituzte mintzagai, besteak beste.

Bigarren eskola, berriz, apirilaren 13an eta 14an emango dute, eta bi egun horietan landuko duten gaia haurtzaroiari eta hizkuntzari buruzkoa izango da.


Hirugarren eta azken jardunaldia anai-arreben arteko harre-

mani buruzkoa izango da. Maiatzaren 11n eta 12an elkartuko dira, eta jeloskortasun, inbidia eta beste hainbat alderdiri buruzko gogoeta egingo dute.

OTSAILAREN 28A BAINO LEHEN

Izena emateko epea zabalik dago, eta otsailaren 28an amaituko dela eman dute aditzera antolatzaileek. Horretarako, izena emateko orria bete eta hamar euroko matrikula ordaindu ondoren, udaletxera edo kultura etxera eramane beharko dute interesatuek.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA

HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Domekan erreferendumean bozkatzeko mahaia herri eskolan jarriko dute

Z.V.M.

Domekan erreferendumean bozkatu gura duten herritarrek herri eskolara joan beharko dute. Izan ere, bertan jarriko dute bozkatzeko mahaia. Bestalde, otsaileko ohiko osoko bilkura egingo dute hileko azken egunean, otsailaren 24an.

Domekan egingo da Europako Konstituzioari buruzko erreferenduma. Leintz Gatzagan ohikoa denez, herri eskolan jarriko dute mahaia. Bertan, hiru herritarrek egon beharko dute; hala ere, haien ordezkioak ere aukeratu dituzte. Hori izan zuten mintzagai aurreko egunean Gatzaga

gako udalbatzak egindako ohiko osoko bilkuran. Urtarrilean elurraren eraginez ezin izan zuten bilkurarik egin, eta horregatik aldatu zuten data otsailaren 10era.

Herrian guztira 248 biztanle daude; hala ere, horietatik 126k dute bozkatzeko eskubidea.

Botoen kontaktari dagokionez, Leintz Gatzaga izan ohi da ibarrean kontaketa amaitzen lehenengoa; hala erakusten dute estatistikek, bederen.

DATORREN ASTEAN, BILKURA

Bestalde, Jose Ramon Perez Leintz Gatzagako alkateak aditzera eman duenez, datorren egunean, otsailak 24, hileko ohiko osoko bilkura egingo dute. Udaltxean elkartzeko dira, beraz, 18:00ak inguru.



Herri eskolan mahai bakarra jartzen dute bozkatzera joaten direnentzat.

ARTXIBOA

248 biztanle ditu Leintz Gatzagak; 126k izango dute domekan bozkatzeko aukera

Leintz Gatzaga ibarreko herrietatik lehenengoa izaten da emaitzak zenbatzen

Bilera egin zuten elkarteetan, eta bi batzordekide aldatu dituzte

Domekan, otsailak 13, Leintz Gatzagako elkarteetan —Garro jaurregia— bilera egin zuten. Hainbat gai landu zituzten bertan.

Hasteko, elkarteetan egin beharreko zenbait lan buruz mintzatu ziren. Hala ere, ez zuten erabakirik hartu, eta beste baterako utzi zuten gaia.

ORDENAGAILU BERRIA

Bestalde, arau batzuk ere aldatu egin dituztela eman du aditzera Jasone Elkorbarrutia elkarteak. "Gainera, ordenagailua jartzea erabaki dugu". Orain arte eskuz egiten zituzten kontuak bazkideek. Orain berriz, garai berrietara ohitu eta modu berrira egokitu beharko dute

euren eragiketarako egiteko orduan elkarteko kideek.

BI BATZORDEKIDE BERRI

Domekako bileran askotariko erabakiak hartu zituzten elkarteko kideek. Horien artean, bi batzordekide aldatzea. Orain arteko lehendakariak eta sotoaren arduradunak kargua utzi zuten; Jesus Urrutia eta Jose Antonio Beitialarringoitiak, hain zuzen ere. Beste bi lagun sartu dituzte elkarteetan, hala ere: Matxalen Goiburu eta Amaia Olabe.

Hutsik geratu diren bi karguak betetzeko pertsonak aukeratu beharko dituzte orain. Hori, baina, martxoaren 1eko bileran erabakiko dute.

LABUR

Inauterietan herrira etorritakoei, eskerrak

Aurreko astean irakurle batek Leintz Gatzagako Inauteriak antolatzen aritu zirenak zoriondu zituen. Aste honetan, berriz, Udalak eman gura die eskerrak bertaratu ziren guztiei.

"Parte-hartzea eskertu gura diegu herrira gerturatu ziren guztiei; giro ona sortzeko ezinbestekoak izan ziren lagun guztiei", eman du aditzera Jon Sasiain Udaleko kideak. "Datorren urterako hainbat gaitan hobetzeko xedea dugu, afariaren kopuruan, esaterako", gaineratu du Leintz Gatzagako zinegotzi Sasiainek.

'Soginek' bilera egingo dute martitzenean, datozen asteetako erabakiak hartzeko

Egunak aurrera doaz, eta, urtero bezala, herriko emakume taldeak Martxoaren 8a ospatuko du. Horretarako, bazkaria antolatu dute. Martxoaren 5ean izango da hitzordua, Gure Ametsa jatetxean. Oraindik ere interesatuek izena eman dezakete, herriko Labidea dendara joanda.

Bestalde, Amaia Olabe Soginak taldeko kideak aditzera eman duenez, martitzenean, hilak 22, bilera egingo dute herriko emakumeek. Euren elkarteetan bilduko dira, 20:30ean.

"Zenbait gai jarriko ditugu mahai gainean", eman du aditzera Olabek. "Besteak beste, Emakumeen Eguneko bazkaria antolatzen amaituko dugu. Bestalde, urtero egiten dugun bidaia nora egin erabakitzekeo elkartzeko gara datorren martitzenean". Era berean, gogoratu du aurtengoa hamabosgarren bidaia izango dela, eta aurreko urteetako arrakasta izatea espero dute. Hilabete hasieran adierazi zuten zerbait berezia egin gura dutela aurtengoa, eta hala berretsi dute oraingoan ere.

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri? 943 79 86 21

ALOÑA-UDA

Oñatiarren eta
aretxabaletarren
arteko derbia
Goiena Telebistan

Domekan, otsailaren 20an
Azkoagain futbol zelaietan, 16:30ean
19:30ean GOITBn




Ikustekoa!

ALOÑA-UDA
Laguntzaileak:
Olakua, Ongi, Ezkutu, Haizea eta Ibarra Jatetxea.



Tabernen arteko
1. Dekorazio
Lehiaketako
irabazlea:



" Epaitzen ari diren 42 gazte
eta sorginentzat elkartasuna
eta muxu haundi bat.
Gora zuek!! "

loramendi
euskera elkarte

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA
943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
• Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
• E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefona eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187